



2010EKO APIRILAREN 22KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita bian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Ángel Hernández Marzal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko dira Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak bertaratzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du eguneko gai zerrendan jarrita baldin bazegoen ere "Santa Magdalenako garajeen erregimen juridikoa aldatzeko prozedura hastea" gaia behar adina landu gabe dagoela eta, gaur ez dela eztabaidatuko.

Osoko Bilkurak ontzat ematen du alkateak esandakoa.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratu da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 20010eko martxoaren 25an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Javier Moreno González de Lara zinegotzia bertaratu da.

III.- BIDEGORRIA EGITEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDAREN ONARPENA.-

Udal honek, 2010eko martxoaren 3ko alkatetzaren ebazpen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak sustatutako BEASAIN-LAZKAO BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA ERAIKITZEKO PROIEKTUA burutzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen.



Zerrenda hau jendaurren eduki da eta banakako jakinarazpenak bidali zaizkie uki-tutako guztiei.

Jendaurrean egon den denboraldian bi alegazio jaso ziren eta geroago bi alegazio horien egileetako batek alegazio horretan atzera egin du.

Beraz, aurkeztu eta atzera egin gabe dagoen alegazio bakarraren aurrean, udal teknikariek beraien txostena egin dute eta bere txostena egin du baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Alkateak esaten du ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartu baino lehen proiektua behin betikoz onartuta egon beharko lukeela eta Gipuzkoako Foru Aldundia proiektu hau behin betikoz onartzeko daukan aurrikuspena datorren asteartekoa dela, hau da 2010eko apirilaren 27an.

Hau horrela, osoko bilkurak ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzearen eta eskubideen presazko okupazioaren beharra aitortzearen erabaki ahalmena alkatearengan utz dezan dela egiten duen proposamena.

Honen aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakia hartzen du: Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak sustatutako BEASAIN-LAZKAO BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA ERAIKITZEKO PROIEKTUA burutzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzea eta Zerrendatutako ondasun eta eskubideen presazko okupazioaren beharra aitortzea eta dagokion jabetza kentze espedientearen hasiera egina dagoela jotzeari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena alkatearengan eskuordetzea.

Une honetan Ricardo Crespo Rubio zinegotzia bertaratu da.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak adierazten du festak bihar hasiko direla suziriaren pizte edo txupinazoarekin.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the seal. The signature appears to be 'Ricardo Crespo Rubio'.